

Sagardoarekin gozatzen duen herria

Txillida familiak hasi du txotx garaia

◀ Astigarragako sagardoak bezain sona handia ez bado ere, Hernanikoa ez da makala, eta gero eta jende gehiago etortzen da txotx garaian Hernanira, bertako zein inguruko sagardogileek, Berriak merkataritza elkarteak eta Kaxko auzo elkarteak parte hartu zuten bertan. Aurtengo Txillida familiak hasi du garaia; «Txillida-Lekuk Hernaniri egindako promozioagatik eta familia honek gure Hernanirekin duen loturagatik», batzodeko kideen hitzetan.

Urtarrilaren 22an hasi zen aurtengo txotx garaia. Txotx batzordeak antolatu zuen irekiera ekitaldia, eta Udalak, herriko sagardogileek, Berriak merkataritza elkarteak eta Kaxko auzo elkarteak parte hartu zuten bertan. Aurtengo Txillida familiak hasi du garaia; «Txillida-Lekuk Hernaniri egindako promozioagatik eta familia honek gure Hernanirekin duen loturagatik», batzodeko kideen hitzetan.

Sagardo garaia hasteko ekitaldian, herri txotx a izan zen, eta bertaratu ziren guztiek 2006ko sagardoa dastatzeko parada izan zuten.

Ekitaldian, txalaparta doinuez, bertsoez, herri txotxaz, Los Incansables txarangaren soinuaz eta herri kirol erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zen. Eguerdian, Aitor Ruiz de Eginok artistak diseinaturiko irudi bat eman zioten Txillida familiari (Luis Txillida Eduardo Txillidaren semea eta Pilar Belzunze haren alarguna, eta familia honetako kideak arkupeetan jarrituzten, upeletako sagardo berria probatzeko. Pilar Belzunzek hunkituta gogoratu zituen leku bakartu baten bila senarrarekin Hernanira etorri eta bertan pasatutako urteak. Haren hitzetan,



TXILLIDATARRAK totx sasoiaren hasiera ekitaldian. HERNANIKO KRONIKA

Hernani Eduardo Txillidarentzat oso garrantzitsua izan da, baita berarentzat ere.

'Txotx eginda Hernanira, baina kalean... sshhh'

Urtetik urtera gero eta jende gehiago etortzen da Hernanira txotx garaian, afaldu ondorenean parrandan jarraitzeko asmo sendoarekin. Biltzen den jende andana hainbat iskanbila iturri izan da urtero: herriko hainbat instalazio apurtzen dituzte, kalean txiza egiten dute eta, batez ere, gehiegizko zarata ateratzen dute.

Hori guztia ekiditeko, hernaniarrak eta parrandazaleak elkarrekin ondo moldatzeko, kanpaina bat jarri zuten martxan Kaxkoko bizilagunek, tabernariak, sagardogileak eta Hernaniko Udalak. Jendea kontzientziazteko, eslogan hau erabili dute: *Txotxean eginda Hernanira, baina kalean... sshhh.*

Horrez gain, ikastaro bereziak eskaini dizkiete herriko tabernariei, sor daitezkeen gatazkak konpontzen ikasteko. Eta udaltzainen kopurua ere areagotu egin da txotx garaian.

Sagarrondotik jaialdia

Txotx garaia harira eta sagardoa sustatzeko asmoz sortu zen orain urte batzuk Sagarrondotik jaialdia. Urtarrilaren 21ean egin zuten aurkezpena, Benito Lertxundiren kontzertu batekin.

Baina egunik garrantzitsuenak martxoaren 17a eta 18a izan ziren. 5.000 pertsona baino gehiago etorri zen Sorkun, Loquillo, Chambao, Pal Keli THC, Morodo & Racking Soldiers, Berri txarrak, Hamlet eta Betagarri entzutera, Landare pareko karpas.

Jaialdia martxoaren 19an amaitu zen, Urnietan antolatutako ekitaldi batzuekin.